



# Aquí vivo, aquí voto

## Campaña por la cesión de voto a personas inmigrantes

El próximo 20 de febrero la ciudadanía del Estado español está llamada a votar para pronunciarse sobre la Constitución Europea. Al mismo tiempo, cientos de miles de personas inmigrantes –que tienen un proyecto de vida, una residencia estable, en muchos casos con sus familias y sus hijos e hijas escolarizadas, donde tienen las mismas obligaciones que el resto de la ciudadanía, donde pagan sus impuestos y contribuyen de forma decisiva a la configuración y el desarrollo de esta sociedad– no van a poder votar debido a que se les niega los derechos políticos básicos.

El Tratado de Maastricht establecido en 1992 supuso la extensión del derecho al voto en las elecciones europeas y locales a todos y todas las ciudadanas de la Unión Europea, lo que llevó a reformar la Constitución Española para hacerlo posible. Pese a que el Parlamento Europeo se ha pronunciado en varias ocasiones a favor de extender esos derechos electorales a las personas inmigrantes con residencia estable en la UE, la Constitución Europea ha preferido no contemplar en absoluto esa posibilidad. Así se ha excluido radicalmente del derecho al voto a cerca de 20 millones de personas inmigrantes que viven en Europa de las que en torno a las 20.000 lo hacen en Navarra y más de 50.000 en la CAPV.

Desde Batzarre y Zutik sostenemos que todas las personas que viven en la Unión Europea tienen derecho a hacerlo con igual dignidad. Creemos que no es posible una sociedad justa si, junto a los ciudadanos y ciudadanas con todos los derechos, existe una gran bolsa permanente de personas cuyos derechos se ven disminuidos a causa de su origen. Negar a esas personas el derecho a participar de forma plena en la vida social, cultural y política, además de ser injusto, empobrece la propia democracia y, a la larga, genera problemas sociales de tal envergadura que pueden deteriorar seriamente el conjunto de la vida ciudadana.

Por ello, defendemos que todas las personas que tienen residencia estable en los distintos Estados de la Unión Europea sean tratadas igualitariamente y vean reconocido el derecho a participar con su voto en las decisiones de la comunidad de la que ya forman parte y que afectan a su propio futuro. Esto favorecerá el proceso de integración y de arraigo en nuestras comunidades de esas familias que han superado todos los obstáculos legales (que son muchos) para regularizar su situación y que están intentando lograr una vida mejor.

Por estas razones, desde Batzarre y Zutik, estamos realizando una campaña a favor de la cesión de voto a personas inmigrantes carentes de este derecho. Se trata de un gesto simbólico que ya lo hicimos en las elecciones Europeas y al que queremos dar ahora continuidad. Consiste en ir a votar en el próximo referéndum sobre la Constitución Europea acompañado de una persona inmigrante que es quien escoge la papeleta en nuestro lugar. Con ello queremos mostrar nuestra protesta, así como la exigencia de que se realicen los cambios legislativos necesarios para que se haga extensivo el derecho al voto, a todas las personas inmigrantes con residencia estable en la Unión Europea. Esto no significa ningún menosprecio por el derecho al voto. Todo lo contrario, porque lo valoramos, creemos que es inadmisibles una discriminación tan flagrante.





# Bizi-lekua, bozka-lekua

## Nork bere boza etorkinei uzteko kanpaina

Datorren otsailaren 20an, Estatu espainoleko hiritar garenok Europako Konstituzioa onartu ala bazter emateko boza ematera deituta gaude. Aldi berean, ordea, gure artean bizi diren ehunka mila etorkinek ezingo dute bozkatu, oinarri-oinarrizko eskubide politikoak ukatu egiten zaizkielako, nahiz eta geure artean duten beren bizi-leku iraunkorra, beraien lantoki edota ikas-lekua, hementxe dauzkatelako euren familiak eta seme-alabak, eta gutako edozeinek bezalakoxe betebeharrak dituzten arren, beren zergak hementxe ordaintzen dituzten arren eta, bidenabar, geure gizartearen osaeran eta bilakaeran bete-betean parte hartzen duten arren.

1992an, Maastricheko Tratatuak Europar Batasuneko hiritar guztiei aitortu zien europar eta udal hauteskundeetan boza emateko eskubidea, edonon zeudelarik ere; hori ahalbideratzeko, Espainiako Konstituzioa berritu behar izan zen, besteren artean. Europako Parlamentuak behin eta berriz eskatu duen arren horrelako hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea Europar Batasunean bizileku iraunkorra duten etorkinei ere aitortu behar litzaikeela, Europar Konstituzioak nahiago izan du eskakizun hori aintzakotzat ez hartzea, eta bidenabar eskubide hori gabe geratzen dira 20 milioi etorkin inguru (horietatik 20.000 Nafarroan eta 50.000 EAEn).

Europar Batasunean bizi diren pertsona guztiek dutela duintasunez bizitzeko eskubidea deritzogu. Uste dugu ezinezkoa dela gizalegezko gizarte bat osatzea baldin eta, berdintasun giroan bizi diren hiritar batzuen alboan, beren jatorriagatik eskubide murriztagoak dituzten beste pertsona batzuek osatutako multzo iraunkorra eratzen bada. Biztanle horiei, bizimodu sozial, kultural eta politikoan bete-betean parte hartzeko eskubidea ukatzeak, demokrazia bera antzutzen du. Eta gizalegearen aurkakoa izateaz gain, luzarora, herri-bizimodua bera benetan zapuztuko duten arazo sozial latzak ereiten dira horretara.;

Horrexegatik aldarrikatzen dugu geure artean bizileku iraunkorra duten etorkin guztiak geure hiritar-kide legez onartuak izan behar dutela, eta beraiek ere osatzen duten gizarte honen erabakietan euren bozaz esku hartzeko eskubidea aitortu behar zaiela, beren etorkizuna ere erabakizun denez. Horrela, bidenabar, gure artean beren egoera erregulartu eta finkatzeko indarrean dauden legeek ezarritako eragozpenak (txantxetakoak ez direnak) gainditzea lortu eta beraientzat eta beren ondorengoentzat bizimodu duinagoa lortzen ahalegintzen ari diren familia horiek geure artean integratzen eta errotzen joan daitezen lagunduko diegu, gure ustez.

Hau guztia gogoan dugula, Batzarre eta Zutikeko kideok, eskubide hori gabe aurkitzen diren etorkinei geuk dugun bozkatzeko ahalmena uzteko kanpaina bati ekin diogu. Iragan Hauteskunde Europarretan ere egin genuen eta orain jarraipena eman nahi genioke jarrera sinbolikoa hari. Laster Europar Konstituzioari buruz egingo den erreferendumeko hauteskontzietara etorkin batekin joan eta, geure orde, hark aukeratzen duen boz-txartelarekin bozkatzean datza. Horrela, geure protesta agertu eta behar diren lege aldaketak egin daitezela Europar Batasunean bizi-leku egonkorra duten etorkin guztiek bozkatzeko eskubidea izan dezaten eskatu nahi genuke. Ez diogu inolako mespretxurik egiten bozkatzeko eskubideari; guztiz alderantziz: oso aintzakotzat hartzen dugulako, onartezina iruditzen zaigu egun ematen den diskriminazio lotsagarri hori.

 batzarre

ZUTIK 